

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GASTEIZKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2014.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den otsailaren 9an Gasteizko Udalaren eta bere tokiko erakunde autonomoen eta sozietate publikoen ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa.

Txostenak ondorioztatu du bai Udalak bai tokiko erakunde autonomoek eta sozietate publikoek **zuzentasunez bete dutela** 2014ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **legezko arautegia**; alabaina, zenbait huts azaleratu da **Langileen eta Kontratazioaren** atalean, **Udalean** ez ezik, **AMVISA** sozietate publikoan ere bai; honela, bada, AMVISAk 3 lan kontradun finko kontratatu ditu Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea urratuz; Udalak ez du ez Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ez Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman herriko argiak mantendu, zaindu, konpondu eta hobetzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa, 687.603 euroren balioetsitako balioa duena; Lakua-Arriagako osasun zentroa helduentzako gizarte-etxe modura egokitze lanen kontratazioa publikotasunik gabe gauzatu da, guztira 579.556 euroren zenbatekoan eta emakidaren esleipendunak zuzenean kontratatu ditu, Udalak egin beharrean, Udal gutxizkari merkatuan gune berrien forjari eta egokitze lanak, 303.916 euroren zenbatekoan; bestetik, **AMVISA** sozietate publikoak instalakuntzak zaintzeko zerbitzua kontratazio araudiari loturiko prozedurarik gabe egikaritu du, 2014ko ekitaldian 201.000 euroren gastua izan duena. **Berebat**, ez dago indarreko lotura administratiborik informazio, markesina eta interes zein erabilera publikoko beste euskarri batzuk diseinatu, instalatu, zaindu eta ustiatzeko zerbitzuaren prestazioa eta administrazio-emakida honen canon kontzeptuarekin erregistraturiko diru-sarrerak babestuko dituenik.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia eman du kasu guztietan; alabaina, Udalaren Diruzaintza Geldikina 22,7 milioi euroan murriztea eragiten duten zenbait doiketa azaleratu ditu. Gainera, Kontu Orokorraren oroitidazkiak ez du FEPELi dagokionez Udalak AFArekin duen zorrari buruzko informaziorik ematen.

Udal sozietate publikoei dagokienez, HKEEk zenbait doiketa azaleratu ditu AMVISA eta Ensanche 21 Zabalgunean, horien ondare garbia, hurrenez hurren, 1,5 eta 1,1 milioi euroan gehituko luketenak. Halaber, Ensanche 21 Zabalgunek ez ditu aktibo jakin batzuen balio-narriadura kontzeptuan galerak erregistratu (3 milioi euroren higiezinetakoko inbertsioak eta Izakinen 3 kontu-sail, 45,7; 10,5 eta 16,5 milioi eurorenak). Bestalde, Ensanche 21 Zabalguneko “Ibilgetu materiala” idazpuruak sozietatearen egoitza dagoen eraikina egokitzearen kostua jasotzen du, Udalaren jabetzakoa dena, 2,3 milioi euroren zenbatekoan; ez da, baina, alde bien artean horren erabilera baldintzak arautuko lituzkeen lagapen akordiorik gauzatu, kontularitzako erregistroan eragina izango lukeena.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk azpimarratu du azken ekitaldian **aurrezki garbiak** nabarmen **egin duela behera**, 2014ko ekitaldian **negatiboa** izatera arte; izan ere, **ezinezkoa da gastu arruntari eustea**. Gainera, aurreko 2 ekitaldietan eskuratutako sarrera arruntan zenbateko handi batek aparteko izaera zuen eta ez dira behar hainbatekoak izan 2014an diru-sarrerak handiagotzeko abiarazitako neurriak. Hauek horrela, inbertsio berriak egin ahal izateko beharrezkoa izango da diru-laguntza esanguratsuak eskuratzeaz gain, ondarea saltzeko prozesuarekin jarraitzea, eta edonola ere, gastu eta sarrera arruntak berraztertzea, aurrezki garbia tasa positiboetara ekartzeko.

Honez gain, Txostenak adierazi du udal Kontu Hartzailtzak jaulkitako txostenaren arabera, Udalak 2014ko ekitaldian aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak eta gastuaren araua bete dituela, nahiz sozietate publikoetako 2, GILSA eta Ensanche 21 Zabalgunea, aurrekontu-desoreka egoeran dauden, hurrenez hurren, 81.208 euroren eta 24,6 milioi euroren defizitarekin.